



Farmazia Fakultatean hautazko kredituak aitortzeko prozedura

Ikasleak **behin bakarrik** joan beharko du Idazkaritzara hautazko kredituak aitortzeko eskatzera; hain zuzen ere, **sei kredituak aldi berean aitortzeko** eskatu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio guztia eskura duenean. Alegia, ikasleak eskuraturiko ziurtagiri guztiak gorde beharko ditu eta sei kredituak lortzeko moduan dagoenean Idazkaritzara joan daiteke, horretarako ezarritako epeen barruan. Ez da inolako arazorik izango, adibidez, kiroletako sei kreditu aldi berean aitortzeko, baldin ikasturte bakoitzean hiru kreditu baino gehiago lortu ez badira.

Fakultatean lehen indarrean zegoen prozedura dela eta, badira ikasle batzuk dagoeneko aitortuta dituztenak beren espedientean hautazko zenbait kreditu beste zeregin batzuen truke. Egoera horretan bazaude, **beste behin bakarrik eskatu** beharko duzu Idazkaritzan kredituak aitortzea; hain zuzen, sei kreditura iristeko falta zaizkizunak lortu ondoren.

Hautazko kredituen onarpenaren bitartez hautazko irakasgairen bat kentzeko asmoa baduzu, EZ zaitetz irakasgai horretan matrikulatu.